

BESTELAKO XEDAPENAK

LEHENDAKARITZA

2306

14/2014 DEKRETUA, apirilaren 24koa, Lehendakariarena, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluan ikerketan eta garapenean inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresa eragileak ordezkatzeko kideak izendatzeko dena.

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseilua arautzen duen apirilaren 8ko 49/2014 Dekretuaren 4. artikulua Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluaren osaera ezartzen du. Kontseilua Euskadin zientzia-, teknologia-, ikerketa- eta berrikuntza-politikaren estrategia bideratzeaz, parte hartzeaz, aholkularitza emateaz eta politika hori sustatzeaz arduratzen den organoa da, eta aipatutako dekretuan ezarritako organo eta erakundeen titularrek osatuko dute, baita ikerketan eta garapenean inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresa eragileen lau ordezkari ere, lehendakariak izendatuta.

Horrenbestez, hauxe

XEDATZEN DUT:

Lehenengo artikulua.– Honako hauek izendatzea Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Kontseiluko kide, ikerketan eta garapenean inbertsio pribatua egiten duten sektore eta enpresa eragileak ordezkatzeko:

José Luis San Pedro Guerenabarrena jauna: Iberdrolako presidenteordea.

Andrés Aizkorreta García jauna: Construcciones y Auxiliar de Ferrocarriles-en kontseilari delegatua.

Antonio María Pradera Jauregui jauna: Presidente de CIE Automotive-ren presidentea.

Fernando Querejeta San Sebastián jauna: Idom-en presidentea.

Bigarren artikulua.– Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2014ko apirilaren 24an.

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA.